

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Antxon Rodríguez
Raimundo Rubio
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

16/02 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluko Bartzorde Iraunkorraren 2016ko apirilaren 12ko bilkurara alboan zerrendatutako kideak joan ziren. Bertan, aho batez eman zen ondoko irizpena: **funts publikoekin sostengatutako EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan ikasturte bakoitzeko eskola egutegia arautzeko oinarrizko arautegia finkatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzeko Agindu proiektuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK:

Ikastetxeek beren autonomiaz baliatuz antolatzen eta planifikatzen dituzte beren eskolako jarduerak. Jarduera horiek urte barruan burutu behar direnez, eskola egutegi bat finkatu behar da ikasturte bakoitzerako.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduak egutegi horiek egin eta onartzeko kontuan hartu beharreko oinarrizko arauak finkatu ditu, ikastetxe bakoitzaren pedagogi- eta antolakuntza-koherentzia bermatzeko, zeina bateragarria izango baita beti Ikastetxeen autonomiarekin.

2013ko uztailaren 3ko Aginduak aldatu zuen aurreko agindua, besteak beste, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak eskaintzen dituzten ikastetxeetako eskola egutegiek bete beharreko oinarrizko arauak arautzeko.

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek 2 artikulua eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua ezabatu egiten du 2008ko martxoaren 10eko Aginduaren 3 bis artikulua, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programei buruzkoa.

Bigarren artikulua aldatu egiten du 9. artikulua, egutegia egiteko eta onartzeko prozesua arautzen duena.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. - BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluaren iritziz, egokiak dira 1. artikuluan Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programei buruz proposatzen diren aldaketak, programa horiek desagertu egin direlako eta Oinarrizko Lanbide Prestakuntzako Zikloen eskola-egutegia erregulatzeko arauak dagoeneko jasota daudelako indarrean dagoen aginduko 4. artikulua 3. atalean.

2. artikuluari dagokionez, aldaketa hauek proposatzen ditu indarrean dagoen Aginduko 9. artikulurako:

- Ikastetxeetako zuzendariak aplikazio informatikoaren bidez egingo dute egutegi proposamena. Orain arte, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidali behar izaten zen, OEGak onartutako saioko aktaren kopiarekin batera.
- Ikuskaritzak ez du txosten bat egin beharko egutegi bakoitzarentzat, baina ikus-onetsia eman beharko die baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenei, eta baztertutako egutegientzat bakarrik egin beharko du txosten bat, baztertzeko arrazoiak adieraziz.
- Ikuskaritzak eskumena du egutegirik bidali ez duten ikastetxeen edo egutegi proposamena onarturik ez dutenen egutegia ezartzeko. Orobat eskumena du idatzizko baimena emateko egutegia aldatzen bada, behin onartua izan ondoren. Indarrean dagoen araudian, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariak dira bi eskumen horiek.

Aholkularitza teknikoak proposamen honi buruz egin duen txostenak ez du egokitzat jotzen eskumen horiek Ikuskaritzari esleitzea, izan ere, txosten horretan esaten da Hezkuntzako Lurralde Ordezkariak dauzkala kasu guztietan eskolako egutegi proposamenak onartzeko eskumenak. Horregatik, arauaren jatorrizko idazkera ez aldatzea gomendatzen du.

Ondorioz, Kontseiluaren iritziz, beharrezkoa da kontu hori argitzea, arautzen den prozedurak legezko berme guztiak izan ditzan.

Alderdi puntualak:

- 4. atala: 9.1 atalean ageri den moduan, ikastetxeek ez dute proposamena bidali beharko, aski dute egutegi proposamena egitea. Hala, koherentzia mantentzeko, 4. atalean aldatu egin beharko litzateke esaldi hau: "Ikastetxeren batek ez badu bere proposamena *bidaltzen...*" Horren ordez, "*egiten*" jarri beharko litzateke.

- 5. atala: Lurralde Ordezkaritza terminoa erabili beharrian, Lurralde Ordezkaria erabiltzea proposatzen dugu.
- 6. atala: akats bat dago gaztelaniazko idazkeran; “Todos el curso escolar” dioen tokian “Todo” esan behar luke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2016ko apirilaren 13a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA